

XEDAPENA, 2023KO AZAROAREN 10EKOA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA, APARTEKO EPEA IREKITZEN DUENA AMATASUN/AITATASUNAGATIKO ALDI BATERAKO EZINTASUNEKO EGOERETATIK ERATORRITAKO ALDIAK ALEGATU ETA EGIAZTATZEKO, LANBIDE-ESPERIENTZIAREN ATALEAN, MEREZIMENDU LEHIAKETA BIDEZ, ERRADIOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTAREN KATEGORIAN, ETA OSATEK-EN DESTINOAREKIN, LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZAERA ESKURATZEKO PROZESUAREN BARRUAN.


OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEKen destinoa duten erradiologiako mediku espezialistaren kategoriako lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2023ko apirilaren 4an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEKen destinoa duten erradiologiako mediku espezialistaren kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2023ko apirilaren 18an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEKen destinoa duten erradiologiako mediku espezialistaren kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko merezimendu-lehiaketaren bidez onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, eta 10 eguneko epea eman zen izangaiek merezimenduak alegatu eta egiaztatu ahal izateko, Campo&Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez (www.campo-ochandiano.com) edo, bestela, aurrez aurre OSATEKen egoitzan (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbo).

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2023ko azaroaren 2an emandako xedapen baten bidez, aldatu egin zen merezimendu-lehiaketaren bidez lan-kontratu finkoko langile izateko prozesuaren oinarri arautzailea baloratzeko irizpidea, OSATEKen aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez. Aldaketa hori amatasunagatiko/aitatasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoeretatik datorren lanbide-esperientziari aplikatuko zaio, baldin eta dagokion Gizarte Segurantzaren Probintzia Zuzendaritzaren prestaziorako eskubidea epai edo ebazpen bidez aitortuta badago.

 Horregatik guztiagatik, eta sozietatea eratzeko estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau

Data/fecha: 2023 AZA. NOV. 10

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK/Nº: 112 / 2023

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Xedapen hau OSATEKen webgunean (osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Bigarrena: Hamar egun aparteko epea ematea, xedapen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, onartutako izangai guztiek alegatu eta egiaztatu ahal izan ditzaten, lanbide-esperientziaren atalean meritu gisa zenbartzeko, amatasun/aitatasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoeretatik datozen aldiak, dagokion Gizarte Segurantzako Probintzia Zuzendaritzak epai edo ebazpen bidez aitortuta. Alegazio eta egiaztapen hori Campo&Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez egingo da (www.campo-ochandiano.com), helbide elektroniko honetan: ra6478osatek@campo-ochandiano.com; bestela, aurrez aurre egingo da, OSATEKen egoitzan (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbo).

Bilbon, 2023ko azaroaren 10ean
Zuzendari Kudeatzailea


Josu Xabier Llano Hernaiz